



Balantze Soziala 2016



1 **Aurkezpena** 2. orrialdea

2 **Nortasuna**
Pertsona konprometituak
balio soziala sortuz 6. orrialdea

3 **Zerbitzuak eta artatutako herritarrak** 9. orrialdea

4 **Agintzari Gure Kabuz** 15. orrialdea

5 **Gardentasun txostena** 19. orrialdea

6 **Agintzariko pertsonak** 27. orrialdea

7 **Erakundeak eta agenteak** 38. orrialdea

8 **Zabalduz** 42. orrialdea

Aurkibidea





Aurkezpena

1

Aurkezpena



2016 Agintzari G.E.S.K. erakundeak, talde, sistema eta erakunde dinamiko eta malgu den aldetik, aurrera egiten jarraitu du bere eginkizun sozialean, proiektu desberdinak eskainiz eta osatuz, lehendik finkatuta zeuden beste batzuk berrituz eta garatuz, eta alde horretatik, horietako bakoitza bere jardunbide egokiaren, bere ibilbidearen eta bere egokitze-gaitasunaren isla da, bai premietara eta bai gizarte-testuinguruaren aldakortasun eta errealitatera ere egokitzen jakin duelako.

Horixe da, hain zuzen ere, 40 urteko ibilbidea egina duen erakunde honen muina, gizartearentzat eta gizartearen alde lan egiten duelako, beti etorkizunari begira, eta 2016 urte esanguratsuari amaiera emateko, kooperatiba gisa bere 25. urteurrena ospatuko du. Arrazoi horrek, zalantzarik gabe, suspertu eta poztu egiten gaitu, gure lanaren profesionaltasuna, ilusioa eta Agintzari osatzen dugun pertsona bakoitzak eginkizun horri aurre egiteko orduan erakusten dugun erantzukizuna ospatzen dugulako: horixe da gure proiektua. Hastapeneko lan horretan lekukoa hartzea esan nahi du horrek, geure balioetatik abiatuta, Agintzariren nortasuna elkarrekin eraikiz eta sustatuz.

Partaidetzan eta jardunbide egokian oinarritutako

kudeaketa-eredu horrek islatzen du nagusiki kooperatibaren nortasun hori, eta horri esker, gure ezagutzak eta gure esperientziak beste lurralde batzuetako beste profesional batzuekin partekatu ahal izan ditugu, eta horren adibide dugu, esaterako, Gipuzkoako Zabalduz kooperatiba, eta zinez espero dugu kooperatiba berrien hazi eta abiada izatea.

Gure kooperatibaren proiektua, gainera, etorkizunari eskainitako begirada bat da, eta horrek gogoeta egiten jarraitzea bultzatzen gaitu, ez barnera begira bakarrik, baizik eta baita kanpora begira ere, 3. sektoreko sare desberdinak eraiki, indartu eta horietan parte hartzeko garrantziaren inguruan, betiere Arlo Soziala finkatzeko helburuz.

Zuzendaritza Kontseiluak eskerrak eman nahi ditu erakundeko pertsona bakoitzak izan duen parte-hartze eta inplikazioagatik, beren lanaren bidez eta aurrera begiratzuz gure proiektu komun honekin aurrera jarraitzeko eta are gehiago zabaltzeko bermeak eskaintzen dituztelako.


Agintzariren urteurrena

“Xede bat, hamaika emaitza”, 25 urte gizarte-ekimeneko kooperatiba gisa eta 40 urte esku-hartze sozialaren esparruan.

2016ko azaroaren 29an Bilboko BBK aretoan ospatu genuen jardunaldi hau, eta bertan, hirugarren sektoreko erakunde, kooperatiba-mugimendu, ekonomia sozial eta solidario, herri-administrazio eta EAEko gizarte-zerbitzuetako bazkide eta langile, profesional eta ordezkarien konpainia izan genuen. Jardunaldiaren hasieran, Bilboko Alkate José María Aburtok, kooperatibako lehendakari Eva Alkortak eta Javier Múgica lankideak ongi etorria eskaini ziguten. “Gizarte-ekimeneko erakundeek erantzukizun publikoko politikei egindako ekarpen eraginkorra” gaiari buruzko elkarriketetan, Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokiko Rafa López Arostegik, REAS Euskadiko Ekonomia Sozial eta Solidarioaren Sareko Carlos Askunzek eta Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomia Aplikatuko irakasle Enekoitz Etxezarretak parte hartu zuten. Goizaren erdialdera, beste mahai-inguru batean, CEPES eta Social Economy Europe erakundeetako lehendakari Juan Antonio Pedreño, Catalunyaeko Lan Elkartuko Kooperatiben Gizarte Ekimenaren Arlo Sektorialeko zuzendari Joan Segarra eta Tangente Kooperatiba Multzoaren Talde Koordinatzaileko kide Ana Álvarez izan genituen.

Horrez gain, urteurren honetan oroitzapen bat eskaini nahi diegu, baina baita gure aitortza eta gure esker ona adierazi ere, ondoko hauei:

- ⦿ 70eko hamarraldian gizarte-desoreken aurkako borrokan inplikatu eta, Agintzari kolektiboa osatzearekin batera, haurtzaroaren alde mobilizatu zirenei.
- ⦿ 90eko hamarraldian profesionalizatzeko eta kooperatiba bihurtzeko urratsa egin zutenei.
- ⦿ Agintzarik egin duen ibilbide honetan, kooperatiba proiektu honen alde lana, ahalegina, ilusioa eta konpromisoa erakutsi dutenei.
- ⦿ 40 urte egin dituztenei nahiz atzo sartu zirenei.
- ⦿ Gaur egun daudenei, egon direnei eta egongo direnei.
- ⦿ Haurrei, nerabeei, familiei eta erabiltzaileei, gure izateko arrazoi direlako, arreta hobetzen ahalegintzen garen guztioi, eta ikertzen eta berritzen aritzen garen guztioi.
- ⦿ Gurekin elkarlanean aritzen diren Gizarte Zerbitzuetako eta Zerbitzu Komunitarioetako profesionali.
- ⦿ Gizarte zibileko eta politikako ordezkari, gizarte-ekimena eta gure kudeaketa-eredua balioesten eta horren alde lan egiteagatik.
- ⦿ Hirugarren Sektoreko erakundeei, eta Reas, EAPN Euskadi eta Gizardatz erakundeei, horiekin historia, lorpenak eta aldarrikapenak partekatzen ditugulako.
- ⦿ Kooperatiben munduari, gure berezitasun honetan harrera egokia egin, lagundu eta babesa eskaini digulako.
- ⦿ Zabalduz Koop. Elk. erakundeko bazkide eta langilei, horiekin lankidetzatza-bide bat abiarazi dugulako.



Gizarteratzen II


“Erresilientziarako Komunitateak: Sare komunitarioa, zaurgarritasunari aurrea hartzeko faktore babesgarri” izeneko Gizarteratzen II jardunaldi teknikoaren bigarren edizioa antolatu genuen 2016ko urriaren 5ean Bilbon, eta era horretan, berrikuntza eta ezagutza partekatuarekin duen konpromisoari eusten dio Agintzarik.

Ana Forés eta Stepan Vanistendael izan genituen hizlari, erresilientziaren eremuko aditu gisa, eta esku-hartze komunitarioan sendotu beharreko alderdi eta praktika jakin batzuei buruzko gakoak eskaini zizkiguten; horrez gain, 3 esperientzia aurkeztu zizkiguten: “Cases de Infants” (Ricard Calvo), Berrizko Plan Komunitarioa (Asier Blanco), eta Bizilagun Handien Proiektua (Mercedes


Villegas), eremu komunitario honetako proposamen profesionalen adibide gisa.

310 lagunek parte hartu zuten bertan, gehienak Gizarte Hezkuntzako, Psikologiako nahiz Gizarte Laneko profesionalak eta udaleko edo udalaz gaindiko, Hezkuntzako, Osasungintzako eta abarretako langile teknikoak, eta guztira, 40tik gora gizarte-entitate, udal nahiz foru aldundietako gizarte-zerbitzu, erakunde publiko, unibertsitate eta abarren ordezkari gisa aritu ziren. Parte hartu zutenetatik % 85 Bizkaitik etorriak ziren, bigarren tokian Gipuzkoa ageri zen (% 5,5), eta gero Araba (% 4,2), nahiz eta Estatuko eta Europako beste lurralde batzuetatik etorritako pertsonak eta erakundeak ere % 4 izan ziren.


Edukiera: 310 parte-hartzaile



Parte hartu duten erakundeak (40 inguru)



Profil profesionalak



Parte-hartzaileen balioespena

- **Antolatzaileak:** % 98
- **Gogobetetze orokorra:**
 - Oso handia: % 8,11
 - Handia/egokia: % 70,27
- **Eduki interesgarriak/motibatzaileak:**
 - Oso interesgarria: % 28,11
 - Interesgarria: % 70,27



**Gizarte-lanki
detzarekin
konprometituak eta
inplikatua**k dauden
personak
oinarritzat dituen
proiektu bat garatzea
da gure eginkizuna.

**Nortasuna
Pertsona
konprometituak
balio soziala
sortuz**

2

Historia

Gizarte-bazterkeriaren alorrean, **AGINTZARI** kolekti-boaren sorrera 1977. urtean kokatu beharko genuke. Agintzari Elkarteak 1983. urtean lortu zuen nortasun juridikoa eta, une horretatik aurrera, jarduera ugari egingo ditu arrisku-egoeran edo babesik gabeko egoeran aurkitzen diren adingabe eta gazteekiko gizarte-salaketaren, ikerketaren eta arretaren alorrean. Garai horretan, Agintzari Elkarteak hainbat Etxe Funtzional sustatu eta kudeatuko ditu eta hainbat Programa Sozioedukatibo garatuko ditu Familia Heziketaren eta Kale Heziketaren alorrean Esku-hartze Komunitarioko Taldeen bitartez. 1991. urtean, Sozietate Kooperatibo bihurtuko da **AGINTZARI**, eta enpresa-eredu horretan, bere gizarte-xedearekin bat datorren gizarte eta lan arloko esparru bat topatuko du, kudeaketa demokratikoa eta gizartearekiko Konpromisoa ahalbidetuko dituen. 2000. urtean, **AGINTZARI** Gizarte Ekimeneko Kooperatiba bihurtuko da, eta horrek esan nahi du ez duela irabazteko asmorik izango, eta Eusko Jaurlaritzak Onura Publikoko Entitate izendatuko du.



Eginkizuna

AGINTZARI Gizarte Ekimeneko Kooperatiba bat da eta gizartearekin konprometitu dago gizarte-premiak lantzeko eta gizarte-balioa sortzeko ahaleginean. Komunitatearen garapenean eta Gizarte Esku-hartzearen arlo berezian inplikaturako enpresa soziala garen aldetik, proposamen berritzaileak abiarazten eta kalitateko zerbitzuak kudeatzen lan egiten dugu, zailtasunezko egoeran aurkitzen diren pertsonen eta kolektiboen gizarte-premiei erantzuteko helburuarekin. Gure eginkizuna, hain zuzen ere, gizarte-lankidetzarekin konprometitutako eta inplikaturako pertsonak oinarritat dituen proiektu bat garatzea da, eta gure xedea, talde-lanean jardunez, pertsonen, bezeroen, entitate laguntzaileen eta gure ingurunearen gogobetetasuna etengabe bilatuz, gure jarduerak zuzentzen dizkiegun eta zailtasun-egoeran aurkitzen diren pertsonen eta kolektiboen bizi-kalitatea hobetzea, Gizarte Ongizatearen eredu publikoari zilegitasuna ematen laguntzea eta, azken batean, gizarte zuzenago, solidarioago eta bere aniztasunean kohesionatuago bat sustatzea da, elkar-lanaren, komunikazioaren, askatasunaren eta erantzukizunaren ikuspegitik. Gure lankidetzaproiektuak pertsonak ditu oinarri, hainbat arrazoiengatik. Agintzariaren antolamenduaren ardatzak autokudeaketa, partaidetza, esperientzia eta bikaintasuna bilatzen duten pertsonen arteko lidergo partekatua dira, kooperatiba osatzen duten pertsonen nola gure zerbitzuak jasotzen dituztenen gogobetetasuna etengabe bilatuz, baita bezero eta kolaboratzaileena eta bere jardueren xede eta hartzailerik den komunitate osoarena ere. Gure kudeaketaren giltzarria, beraz, Agintzari Gizarte Ekimeneko S. Koop. osatzen duten pertsona guztiek adostutako Eginkizun, Ikuspegi eta Balio Komunekin bat etorritik jokatzea da.



Balioak

Gure eginkizuna eta ikuspegia, besteak beste, gure izateko eta jarduteko era gidatzen eta osatzen duten balio eta printzipio hauetan oinarrituta daude:

- ☉ Gure iritziz funtsezko balio nagusia **gizarte-erantzukizuna** da, gizarte-premiak dituzten pertsoneri laguntzeko eta bezero, bazkide eta laguntzaileen gogobetetasuna bilatzeko konpromiso eta inplikazio gisa ulertuta.
- ☉ Bai erakunde publikoekin eta bai sektoreko eragile sozialekin ere **elkarlanean** aritzearen aldeko apustu irmoa egiten dugu.
- ☉ Hainbat **balio etiko** ditugu ardatz, hala nola Konpromisoa, Erantzunkidetasuna, Zuzentasuna eta Elkartasuna, Zintzotasuna, Errespetua, baita gure Kode Etiko Profesionalak berezkoak dituenak ere, bitarteko gisa zein helburu gisa, bai gure barne-jardueretan eta bai kanpokoetan ere.
- ☉ Geure egiten dugu **emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren** printzipioarekiko konpromisoa, eta berariaz gaitzesten dugu sexuagatiko edozein diskriminazio.
- ☉ Kudeaketaren, informazioaren eta komunikazioaren **gardentasuna** ezinbesteko betekizun gisa ulertzen dugu, bai barnera begira eta bai kanpora begira ere.
- ☉ Kooperatibak, bai antolamendu gisa eta bai norbainako gisa ere, berez dituen **oinarizko kompetentziak** proaktiboki sustatzen eta barneratzen ditugu, betiere kompetentzia profesionalik handiena lortzeko helburuarekin.
- ☉ Zinez uste dugu aurreko balio horiek guztiek bizirik jarrai dezaketela, hedatzen diren neurrian eta, beraz, **elkarlanaren** bidez elkartasunaren espiritua aplikatuz, Nazioarteko Aliantza Kooperatiboak definitutako eta mugimendu kooperatiboak aitortutako balioen ekarpen bereizgarri gisa.
- ☉ Eta bereziki, eta modu erabakigarrian, sistematikoki bilatzen dugu **errentagarritasun ekonomikoa, sozietarioa eta soziala**, eta horri begira, gure jardueren xede eta helburu sozialari emandako etekin ekonomikoak berrinbertitu egiten ditugu (irabazi asmorik gabe), lan elkartuaren bidez (sozietarioa) pertsonak eta enplegua sustatzen ditugu, eta kapital soziala eta harreman bidezkoa sortzen dugu kohesioa eta justizia soziala bultzatzeko ekarpen gisa.



Zerbitzuak
eta artatutako
herritarrak

3

Agintzari CIS-EGK

Haurrak,
Gazteak
eta Familia

Genero
indarkeria

Adinekoak

Hezkuntza/
Aisialdi
hezitzailea

Profesionala/
Prestakuntza

	Gizarte eta Hezkuntza arloko zerbitzuak	Gizarte eta Hezkuntza arloko zerbitzuak	Zerbitzu Psikosozialak	Gizarte eta Hezkuntza arloko zerbitzuak		
Lehen maila -Komunitarioa-	Zerbitzu Psikosozialak Haur eta Gazte zaugarriak banakoei eta/edo familiei orientabideak emateko 35 udal zerbitzu (EISE/SAT)	Genero-indarkeria- ren biktima izan diren Emakumeekin Esku Hartzeko Udal Zerbitzua	Udaleko Zerbitzu Psikosoziala	Derrigorrezko Hezkuntzaren Zerbitzu Osagarriak (6-16 urte)	Unibertsitate Ikerketa	Kudeaketa eta Administrazioa
Bigarren maila -Especializatua-	Egoitza Zerbitzuak Aterpetxeak • Larrialdiko Harrera Zentroak • Etxebizitza Espezializatuak • Sarean Konektatutako Etxeak *	Egoitza Zerbitzuak Aterpetxeak Genero-indarkeria- ren biktima izan diren Emakumeentzako Etxebizitza Sarearen Udal Zerbitzua				
	Adopzio eta Harrera Zerbitzuak • Adopziorako Laguntza Teknikoa • Sarean Konektatutako Etxeak * • Zerbitzu Psikosozialak *			Adopzio eta Harrera Zerbitzuak Eskolako Laguntza Teknikoa *	Hezkuntzako Profesionalak	Kontu-ikuskaritza Kontabilitatea Kalitatea Etika / Soziala DBLO Irakuntasuna
	Laguntza Ildoak Zeuk Esan Orientazio eta Laguntza Zerbitzua 900(116111)	Laguntza Ildoak SATEVI Orientazio eta Laguntza Zerbitzua 900(840111)			Profesional Soziosanitarioak	
	Gehiegikeria eta Arduragabekeria Zerbitzuak • Sexu Gehiegikeria Zerb. • Utzikeria eta Arduragabekeria Zerb.	Tratu txarren emileen tratamendua Hitzune Presondegietan Arreta eskaintzeko Programa			Osasungintzako Profesionalak	
	Lehen maila -Beste era bateko zerbitzuak-	• Ludoteka • Gurasotasun Prog.* • Gizarte eta Osasun alorreko Prog.		• Zaintzaileei laguntzea • Zahartze Aktiboa* • Autonomia Perts.*	• Eskolako Laguntza • Absentismoa. Aurrea Hartzea, Hautematea, Esku Hartzea • Mindfulness Mainstreaming	Familiak eta Komunitateak

Berrikuntza eta Inkubazio Unitatea

Agintzarik kudeatutako Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako zerbitzuak Lehen Mailako Arreta

Lehen Mailako Arretako Zerbitzuak eskainiz, 13.276 pertonekin lan egin dute norbanakoei zuzendutako laguntzen bitartez eta taldeko edo komunitateko programetan parte hartuz.

Pertsona horiekin egiten duten lana, batez ere, Gizarte eta Hezkuntza arloko eta arreta psikosozialeko Esku-hartze Zerbitzuen bitartez, Etxeko Indarkeriaren biktima izan diren emakumeentzako Harrera Etxebizitzen bitartez eta Zaintzaileei laguntzeko Zerbitzuaren bitartez gauzatzen da, eta horien babesna hobetzea, beren kasa moldatu daitezela lortzea eta gizartean txertatzen laguntzea da helburua.

Zerbitzu hauetatik eskaintzen den laguntza era askotakoa

da: baliabide arlokoa (informazioa, orientabideak eta bitartekaritza eskaintzea, laguntza formal nahiz informalerako baliabideak eskuratzeko), emozionala (mina gutxitzea, krisi-uneetan lasaitasuna, babesna eta orientabideak eskaintzea), hezkuntza arlokoa (eguneko oinarrizko jardueretarako gaitasunak, gaitasun pertsonalak, zainketaekin loturikoak eta harremanetarakoak eskaintzea), eta harremanetan laguntzekoak.


Arrisku-egoerei aurrea hartu eta arreta eskaintzeari begira, sare komunitarioa oinarrizko faktore bat da, komunitatearen ikuspegiak azpimarratu egiten baitu pertsonak beren ingurunearekin duten lotura, dauden baliabideak eta gizartearen esku-hartzea eskuratzeko orduan.

Banakoak	8.371
Komun.	4.905
Profesionalak	140
Guztira	13.316

Mutiko adingabeak guztira	2.551	% 54,20
Neska adingabeak guztira	2.150	% 45,70
Adingabeak guztira	4.701	% 56
Gizon helduak guztira	1.385	% 37,7
Emakume helduak guztira	2.285	% 62,20
Helduak guztira	3.670	% 44
Guztira Artatutako biztanleak	8.371	% 100

Artatutako pertsona kopurua


Mutiko eta nerabeak	2.551	% 31
Neskato eta nerabeak	2.150	% 26
Gizonak	1.385	% 16
Emakumeak	2.285	% 27
Guztira	8.371	% 100



- Mutiko eta nerabeak
- Neskato eta nerabeak
- Gizonak
- Emakumeak

Artatutako pertsona kopurua

	0-3	4-7	8-12	13-16	17-18	19-25	26-30	31-40	41-50	51tik gora	Guztira
Emakumeak	117	486	931	902	115	126	76	327	630	226	3.936
Gizonak	104	487	785	618	156	178	185	779	895	248	4.435



Agintzarik kudeatutako Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako zerbitzuak Bigarren Mailako Arreta

Bigarren mailako arreta-zerbitzuetan artatutako biztanleak 5.571 izan dira. Zenbaketa horren barruan bi zerbitzu-multzo sartzen dira beren titulartasunaren arabera, Eusko Jaurlaritzari dagokion ala Foru Aldundiei dagokien kontuan izanda.

Alde horretatik, Enplegu eta Gizarte Politikako Sailak kudeatutako bi zerbitzuak hartzen dira kontuan, eta bai kasu batean eta bai bestean ere, telefono bidezko arreta eta arreta telematiko eskaintzen duten zerbitzuak dira. Bat izatera bereziz genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeei informazioa eta arreta eskaintzeko (SATEVI), eta bestea, Zeuk esan, haurrei eta nerabeei orientabideak, aholkularitza eta informazioa eskaintzeko.

Haurrei babesa eskaintzeko foru aldundiaren titulartasunpeko zerbitzuen bigarren multzoaren barruan ditugu

haurrak babestu, gaitu edo familia arloan osatzeko programak, familiako harrera edo adopzioa sustatzen dituztenak, edo adingabeei egoitzetan harrera egiten dietenak. Zerbitzu horiek Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiek garatzen dituzte.



Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako prestazio eta zerbitzuen katalogoko Zerbitzuen Kudeaketa

(185/2015 Dekretua, urriaren 6koa)

1.3. Programaren definizioa

Bazterkeria-arriskuan edo mendekotasun-arriskuan, edo babesik gabe geratzeko arrisku arin edo apalean dauden pertsonen zuzendua, familiako elkarbizitza nahiz familiakideen artatze- eta zaintze-gaitasunak hobetzeko eta/edo beren kasa molda daitezela erraztu edo ahalbidetzeko. Laguntza hori norbanakoei, familiei eta/edo taldeei zuzendua dago, eta bai pertsonaren etxebizitzan bertan eta bai ingurune komunitarioan ere garatu daiteke.

Esparrua

EAEko hiru herrialdeetako Udalak eta Mankomunitateak

1.9.1. Programaren definizioa

Etxeko indarkeriaren biktima izan diren emakumeei, indarkeria gainditzeko prozesuan daudenei eta beren ardurapean dituzten pertsonen ostatua eskaintzea, babes-neurririk gabeko aldi baterako ostatu-alternatiba bat beharrezkoa dutenean. Gizarte-larrialdiko zerbitzutzat hartzen da, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 3.3 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

Esparrua

EAEko hiru herrialdeetako Udalak eta Mankomunitateak

1.4. Programaren definizioa

Mendekotasun-arriskuan edo mendekotasun-egoeran dauden pertsonen laguntzen dien sare soziofamiliarreko zainzaile ez-profesionalei besteak zaintzeko eta norbera zaintzeko ezagutzak, jokabideak eta gaitasunak eskuratzeko aukera eskaintzen die.

Esparrua

EAEko hiru herrialdeetako Udalak eta Mankomunitateak

2.7.1.2. Programaren definizioa

SATEVI Zerbitzuak telefono-arreta bidez aholkularitza eta laguntza psikosoziala eskaintzen die indarkeriaren biktima izan diren emakumeei, horien gertuko pertsonen nahiz profesionalei, indarkeriari aurrea hartzen eta berdintasuna sustatzen lan egiten duten komunitate-baliabideekin eta erakundeekin elkarlanean.

Esparrua

Eusko Jaurlaritza.

2.7.1.1. Programaren definizioa

Zeuk esan izeneko Zerbitzuak telefono-arreta bidezko eta on-line bidezko aholkularitza eta informazioa eskaintzen du norbanako nahiz komunitateentzat, batez ere haurrei eta nerabeei zuzendua, baina baita horien familiako kideei eta komunitate-baliabideen profesionalei ere, haurren babesarekin eta beren eskubideekin loturiko gaien inguruan.

Esparrua

Eusko Jaurlaritza.

2.7.5. Programaren definizioa

Haurrei eta nerabeei sexu-gehiegikeriak egiten zaizkien kasuetan adingabeei eta perpetradoreei diagnostikoa eta tratamendu psikoterapeutikoa eskaintzeko zerbitzua.

Esparrua

Bizkaiko Foru Aldundia.

2.7.6.1. Programaren definizioa

Haurrei eta nerabeei balioespena, heziketa, aholkularitza eta jarraipen psikosoziala eta hezkuntza arlokoa eskaintzeko zerbitzua, familia-harrerako neurrien bidez, baita beren familia biologiko eta harrera-familiei ere.

Esparrua

Arabako Gizarte Ongizateko Foru Erakundea eta Bizkaiko Foru Aldundia.

2.4.4. Programaren definizioa

a. Jokabide-arazoak dituzten nerabeei laguntzeko egoitza-baliabidea, 13 eta 18 urte bitarteko nerabeei zuzendua, baldin eta bereziki jokabide etengarriak badituzte eta oinarritzko programa orokorraren barruan horiei arreta egitea ezinezkoa bihurtzen badute.

b. Jokabide-arazo larriak dituzten nerabeei laguntza intentsiboa eskaintzeko egoitza-baliabidea, 13 eta 18 urte bitartekoei zuzendua, baldin eta jokabide etengarri edo gizartearen aurkako errepikakor larriak badituzte eta horrek beren buruei edo hirugarrenen min edo kalte larriak eragiteko begi-bistako arriskua badakarte edo beren garapen integrala arrisku larrian jar badezakete.

Gizarte-babesik gabeko egoeran dauden haur eta nerabeentzako egoitza-harrerako baliabideak arautzen dituen uztailaren 8ko 131/2008 Dekretuan arautuak (Eusko Jaurlaritza).

Esparrua

Gipuzkoako Foru Aldundia.

2.7.3.1. Programaren definizioa

Gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua, Gipuzkoako Herrialde Historikoan neska-mutilekin, nerabeekin eta beren familiekin psikologia, gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartzeak garatzeko baliabide bateratua, baldin eta hauren tratu txarrarekin eta/edo abandonuarekin loturiko arazo larriak agertzen badira edo agertu badira, baina sexu-gehiegikeriak, gurasoen seme-alabekiko izandako indarkeria eta tratu txar fisikoak salbuetsiz.

Ondorengo edozein egoeratan aurkitzen diren adingabeei zuzendua:

- Familia biologikoaren edo adopzioko familiaren etxebizitzan.
- Familia-harreran.
- Egoitza-harreran.

Esparrua

Gipuzkoako Foru Aldundia.



4

**Agintzari
Gure Kabuz**

Ekimen
Propioko Ildoa



Agintzari Gure Kabuz Ekimen Propioko Ildoa

Zer garen

AGINTZARI GURE KABUZ premia gisa sortu da. Zerbitzu publikoak eskaintzetik haratago doan “jardunbide” bat indartzeko eta garatzeko premia gisa. **AGINTZARI GK** berrikuntza da, metodologia espezializatua da, garapen tekniko eta profesionala da eta, batez ere, **AGINTZARI GK** pertsonak dira. Beren ezagutzak beste pertsona batzuei eskaintzen dizkieten pertsonak dira, garapen tekniko berritailerako eremu bat sortuz, eta **AGINTZARI**ko profesionalak ere erronka berriak garatu ditzakete, egunero burutzen duten jardueraz gain. 2016an, 70 pertsonak parte hartu dute aukera honetan.

AGINTZARI GK lagundu egiten du, eremu pribatuko formulen bitartez, **AGINTZARI** bere gizarte-eginkizuna bete dezan, gizarte-premiei proposamen berritzaileen bidez erantzunez, eta pertsonengan oinarritutako erakunde-eredu baten bitartez.

AGINTZARI GK barruan jarduera-ildo oso dinamikoa, oso bizia topatzen dugu, abiadura handian aldatzen ari diren gizarte-premietara eta garapen-aukeretara etengabe moldatzen dena.



adoptia




Zer egiten dugun

Gatazka Nerabezaroa

Arlobi

Familia Lotura
Dolua Familia-Terapia



Harrera Adopzioa Sarean Konektatutako Etxeak
Tailerrak Familiak Gainbegirada www.adoptia.es


Adoptia

Nerabe Taldeak
Lotura Theraplay

Hezkuntza Osasuna
Especializazio Teknikoa

Heziketa

Coaching Erakundeak
Gizarte Zerbitzuak



Ikastetxeak Helduarora igarotzea
Ikasle Kooperatibak


Programa Komunitarioak

Erresilientzia Ikasgelak
Adinekoak Jazarpena
Gizarte-bazterkeria

Konpromisoa Emaizak Unibertsiitatea
Zabalkundea

Ikerketa eta Argitalpenak

Berrikuntza Ezagutza
Eraginkortasuna Lankidetzak



Jolaseratu-Jueguerizar®
Mindfulness Eskola

Berrikuntza Teknikoa

Gurasotasun Kontzientea
Theraplay Pedagogia sistemikoa
Mugimendu espresiboa

Atsedena Birkonexioa
Sarean Konektatutako Etxeak

Gizarte Proiektuen Inkubagailua

Lan Intentsiboa
Irtenbideak Integrala

Mazakoop

Koop ESperientziak
Lan Kooperatiboa

Gizarte zailtasuna
Nerabeak Gazteak

Agintzari Gure Kabuz Ekimen Propioko Ildoa

2016

Profesionalentzako heziketa

Ekintza kop.	Parte-hartzaileak guztira	Gizonak	Emakumeak
40	657	135	522

Programa Komunitarioak eta Eskolakoak

Ekintza kop.	Parte-hartzaileak guztira	Gizonak	Emakumeak
5	1.441	746	695
Helduak			
	11	7	
Adingabeak			
	1.430	739	



Arloki Adoptia

Saio Kop. eta Tailerrak	Familia kop.	Haur eta Nerabeak	Pertsona Artatuak
3.458	347	773	2.538
		Gizonak	Gizonak
		301	1.183
		Emakumeak	Emakumeak
		472	1.355



**Gardentasun
txostena**

5



Gardentasun-txostena

Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Bizkaiko Foru Arauaren aginduak oinarritzat harturik prestatua, ondorengo arloei buruzko informazio interesgarria argitaratuko dugu jarraian:

- Erakunde arloa.
- Ekonomia eta Finantza arloa.
- Kudeaketa Publikoaren arloa

Erakundeari buruzko informazioa

Erakundeari buruzko informazioarekin loturik, txosten honetan jasotzen dira garatzen ditugun eginkizun desberdinak, gobernu-organoaren osaera eta erakundearen organigrama.

Eginkizunak


AGINTZARI Gizarte Ekimeneko Kooperatiba bat da eta gizartearekin konprometituta dago gizarte-premiak lantzeko eta balio soziala sortzeko ahaleginean. Komunitatearen garapenean eta Esku-hartze Sozialaren arlo berezian inplikaturako enpresa soziala garen aldetik, proposamen berritzaileak abiarazten eta kalitateko zerbitzuak kudeatzen lan egiten dugu, zailtasunezko egoeran aurkitzen diren pertsonen eta kolektiboen gizarte-premiei erantzuteko helburuarekin. Gure eginkizuna, hain zuzen ere, gizarte-lankidetzarekin konprometiturako eta inplikaturako pertsonak oinarritzat dituen proiektu bat garatzea da, eta gure xedea, talde-lanean jardunez, pertsonen, bezeroen, entitate laguntzaileen eta gure ingurunearen gogobetetasuna etengabe bilatuz, gure jarduerak zuzentzen dizkiegun eta zailtasun-egoeran aurkitzen diren pertsonen eta kolektiboen bizi-kalitatea hobetzea, Gizarte Ongizatearen eredu publikoari zilegitasuna ematen laguntzea eta, azken batean, gizarte zuzenago, solidarioago eta bere aniztasunean kohesionatuago bat sustatzea da, elkarlanaren, komunikazioaren, askatasunaren eta erantzukizunaren ikuspegitik.

Azterkaritza Kontseilua

Kargua	Izena	Agintaldiaren iraupena
Lehendakaria	Eva Alkorta Bedialauneta	2018
Lehendakariordea	Josune Lorente Urkiaga	2018
Idazkaria	Iratxe Amantegi Vegas	2018
Bokala	Gotzone Garate Arruabarrena	2018
Bokala	Aintzane Arteagabeitia Saratxo	2020
Bokala	Rosa Isabel Garai Juez	2020
Bokala	Teresa Aguirre Urkijo	2020



Erakundearen organigrama



Kudeaketa Publikoari buruzko Informazioa

Erakundeak Herri Administrazioekin dituen harremanei buruzko informazioari dagokionez, kontratuei eta hitzarmenei buruzkoak argitaratuko ditugu jarraian.

Kontratuak

Gurekin administrazio-kontratuak egin dituzten herri-administrazioen zerrenda.

Kartera eta/edo erantzukizun publikoko zerbitzuak

Lehen Mailako Arretako gizarte-zerbitzuak

- Gizarte-hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean Esku Hartzeko Zerbitzua (1.3.)

- Gizarte-hezkuntza arloan esku hartzeko zerbitzua Barakaldo
- Arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua
- Gizarte-hezkuntza arloan, arlo psikosozialean eta gizarte-eskola arloan esku hartzeko zerbitzua
- Gizarte-hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua Berriz
- Gizarte-hezkuntza arloan esku hartzeko zerbitzua Irala-San Adrian/Rekalde-Peñaskal (A.B.E.E.)
- Gizarte-hezkuntza arloan esku hartzeko zerbitzua Otxarkoaga-Txurdinaga /Santutxu-Bolueta (A.B.E.E.)
- Gizarte-hezkuntza arloan esku hartzeko zerbitzua Uribarri-Zurbaran/Indautxu Erdialdea
- Gizarte-hezkuntza arloan esku hartzeko zerbitzua Zorrotza /Basurtu-Altamira (A.B.E.E.)
- Arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua Bilbo
- Gizarte-hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua Galdakao
- Gizarte-hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua Getxo
- Gizarte-hezkuntza arloan esku hartzeko zerbitzua (erdi irekia) Eibar
- Gizarte-hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua Ermua
- Gizarte-hezkuntza arloan esku hartzeko zerbitzua Etxebarri
- Gizarte-hezkuntza arloan esku hartzeko zerbitzua Leioa
- Arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua Leioa
- Arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua Muskiz
- Gizarte-hezkuntza arloan esku hartzeko zerbitzua Orozko
- Arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua Portugalete
- Gizarte-hezkuntza arloan esku hartzeko zerbitzua Santurtzi
- Gizarte-hezkuntza arloan esku hartzeko zerbitzua Trapaga
- Gizarte-hezkuntza arloan esku hartzeko zerbitzua Ugao eta beste batzuk
- Gizarte-hezkuntza arloan esku hartzeko zerbitzua Urduña
- Gizarte-hezkuntza arloan esku hartzeko zerbitzua Zierbena
- Gizarte-hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua Busturialdea
- Gizarte-hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua Durangaldea
- Gizarte-hezkuntza arloan esku hartzeko zerbitzua Enkarterria
- Gizarte-hezkuntza arloan esku hartzeko zerbitzua
- Arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua
- Gizarte-hezkuntza arloan esku hartzeko zerbitzua
- Gizarte-hezkuntza arloan esku hartzeko zerbitzua
- Arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua
- Gizarte-hezkuntza arloan esku hartzeko zerbitzua (arreta kasuen arabera)

- Zaintzaileei eta kidekoei laguntzeko zerbitzua (1.4)

(BFA Zainduz Programarekin Konbinatua)

- Arlo psikosozialean laguntzeko zerbitzua eta atsedeen-espazioak

- Etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeentzako harrera-etxebizitza (1.9.1.)

- Etxeko indarkeriaren biktima izan diren emakumeekin gizarte arloan

esku hartzeko Programari gizarte-hezkuntza arloan laguntzeko

Zerbitzua eta programari atxikitako etxebizitzak materialki kudeatzea

- Zorroan sartu ez diren beste zerbitzu batzuk

- Bilbon eskolako absentismoa hautemateko, prebentzioa egiteko eta arreta eskaintzeko zerbitzua
- Ludoteka eta Gaztelekua
- Zerbitzu soziokomunitarioa

Barakaldoko Udala
Barakaldoko Udala
Basauriko Udala
Berrizko Udala
Bilboko Udala
Bilboko Udala
Bilboko Udala
Bilboko Udala
Bilboko Udala
Galdakaoko Udala
Getxoko Udala
Eibarko Udala
Ermuako Udala
Etxebarriko Udala
Leioako Udala
Leioako Udala
Muskizko Udala
Orozko Udala
Portugaleteko Udala
Santurtziko Udala
Trapagako Udala
Ugaoko eta beste udalerrri batzuetako Udala
Urduñako Udala
Zierbenako Udala
Busturialdeko Mankomunitatea
Durangaldeko Mer. Mankomunitatea
Enkarterriko Mankomunitatea
Lea-Artibaiko Mankomunitatea
Lea-Artibaiko Mankomunitatea
Lea-Ibarrako Mankomunitatea
Bermeoko Patronatua
Bermeoko Patronatua
Mendaro eta Elgoibarko Udala

Santurtziko Udala

Bilboko Udala

Bilboko Udala
Mendaroko Udala
Oiartzungo Udala

Kartera eta/edo erantzukizun publikoko zerbitzuak

Bigarren Mailako Arretako gizarte-zerbitzuak

- Adingabeentzako Etxebizitza Zentroak (2.4.4.)

- Larrialdiko Harrerarako Etxebizitza Zentroa (UBA)
- Harrera espezializaturako Etxebizitza Zentroa IRISASI
- Harrera espezializaturako Etxebizitza Zentroa URALDE

Gipuzkoako Foru Aldundia
Gipuzkoako Foru Aldundia
Gipuzkoako Foru Aldundia

- Familiarekin gizarte-hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko Zerbitzuak (2.7.3.1.)

- Hurrekin, nerabeekin eta beren familiarekin gizarte-hezkuntza arloan esku hartzeko zerbitzua (TREBATU)
- Sexu-gehiagikeriazko egoeretan esku hartzeko zerbitzua (SEIP)
- Sexu-gehiagikeriazko egoeretan esku hartzeko zerbitzua (ASASI)

Gipuzkoako Foru Aldundia
Bizkaiko Foru Aldundia
Gasteizko Udala

- Familia-harrera sustatzeko eta laguntza tekniko emateko zerbitzuak (2.7.6.1.)

- Familia-harrerarako zerbitzua Bikaia (F.H.S.T.)
- Familia-harrerarako zerbitzua Araba (A.F.H.L.S.)

Bizkaiko Foru Aldundia
Arabako Foru Aldundia

- Adopzioa sustatzeko eta teknikoki laguntzeko Zerbitzuak (2.7.6.2.)

- Adopzioa sustatzeko zerbitzua Bizkaia (BALS)

Bizkaiko Foru Aldundia

- Babesik gabeko egoeran dauden haur eta nerabeentzako gizarte-informaziorako Zerbitzua (2.7.1.1.)

- Hurrei eta nerabeei telefono bidez arreta egiteko zerbitzua (ZEUK ESAN)

Eusko Jaurlaritza

- Sexuagatiko etxeko Indarkeriaren biktima diren emakumeentzako informazio eta arreta Zerbitzua (2.7.1.2.)

- Indarkeriaren biktima diren emakumeei telefono bidez arreta egiteko zerbitzua (SATEVI)

Eusko Jaurlaritza

AGINTZARI GURE KABUZ

Ekimen Propioko Zerbitzuak

- ADOPTIA

- Adopzioan eta familia-harreran espezializatutako zerbitzua. Balioespenak egin eta arreta psikologikoa eskaintzen die adingabeei eta beren familiei, norbanako, familia eta talde gisa.

Pertsona interesatuen eta erakundeen eskaera zuzena

- Sarean konektatutako etxeak

- Familia-hausturen prebentziorako programa adoptatutako gazteentzat eta/edo gizarte-zaurgarritasunezko egoeran daudenentzat.

Eremu komunitarioa eta Udal arlokoa

- ARLOBI

- Bizitzako garai garrantzitsu desberdinetan krisi-egoeran edo gatazkan dauden familiei arreta egitea. Gizarte-hezkuntza arloko arreta psikologikoa norbanakoei, familiei eta taldeei.

Pertsona interesatuen eskaera zuzena

- Escuela de Mindfulness

- Familia, nerabe eta profesionalentzako tailerrak.

Familiak, erakundeak

- Haurrak harreran aldi baterako hartzeko familien egokitasunari buruzko balioespen-zerbitzua (Sahara, Txernobyl, ikasketa-egonaldia).

Udalak, elkarteak eta instituzioak

- Gizarte-zerbitzu, hezkuntza eta osasungintzaren arloko profesionalen heziketa eskaintzea.

Profesionalak, erakundeak, elkarteak

- Ikerketa eta argitalpenak

Ikerketa-ildo desberdinak

- Zahartzarora aukera gisa

- Zahartze gogobetegarri bat sustatzeko ekimenak diseinatzea

EAEko eremu komunitarioa

- Programak ikastetxeetan

- Bullyinga, berdintasuna, hezkuntza arloko coachinga, irakasleak gainbegiratzea

Hezkuntza arloa

- Gainbegiratzea eta coachinga erakundeetan

Elkarteak, erakundeak eta zerbitzuak

- Helduarora igartzeko programak

- Gazteentzako laguntza-bitartekoak

Familiak, elkarteak eta erakundeak

2016. urtean Agintzariri egin zaizkion kontu-ikuskapenak eta kontrol-sistemak

- Sozietatearen gaineko kontu-ikuskapena, irabazi-asmorik gabeko erakundeen parametroak betetzen dituen egiaztatzeko, REAS erakundeak egina.
- Kalitatearen Kudeaketa Sistemari buruzko kontu-ikuskapena, araua: ISO9001:2008, Lloyd's Register Quality Assurance Limited erakundeak egina
- Ekonomia eta Kontabilitate arloko kontu-ikuskapena, Abante auditores erakundeak egina.
- Laneko arriskuen prebentzio-sistemari buruzko kontu-ikuskapena, Prevención Auditores Glociales, S.L. erakundeak egina
- Kontu-ikuskapen energetikoa, ondokoak egina: EMS2
- DBLOaren segurtasun-sistemari buruzko kontu-ikuskapena, PKF – ATTEST erakundeak egina

Ekonomia eta finantza arloko informazioa

Gure erakundearen ekonomia nahiz finantza arloko informazioari dagokionez, hauxe azpimarratu behar da:

AGINTZARI Gizarte Ekimeneko Kooperatiba bat da, eta beraz, horrek esan nahi du ez duela inolako irabazi-asmorik. Horrez gain, Eusko Jaurlaritzak Onura Publikoko Erakundetzat izendatu duen erakunde bat da.

Zerbitzuak eskaintzea


2016. urtean Agintzarik egindako prestazioen bolumenak azken urteotako hazkunde-joera berari eutsi dio, eta hala, gero eta programa gehiago eta intentsitate handiagoz egin ditu.

Aurten 15.879.088 euroko bolumenera iritsi da, 2015. urtean 14.529.271 eurokoa izan ondoren.

Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetan ezarpen zabala du.

PRESTAZIOAK HERRIALDEKA

- Gipuzkoa
- Bizkaia
- Araba
- Estatua



Herri-administrazioetatik jasotako diru-laguntzak

Ekintza	Onartua	Erakundea	Iraupena
Euskera-Lanhitz 2016	11.017 €	Eusko Jaurlaritza	Urtebete
Kartzelan nahiz preso dauden pertsonak Gizarteratzeko eta Laneratzeko Proiektua	7.360 €	Eusko Jaurlaritza	Urtebete
Haur eta nerabeen kolektiboari arreta egitea eta gizarteratzen laguntzea	7.094,26 €	Bizkaiko Foru Aldundia	Urtebete
Prest Gara, 2.2. Blokea. Prest	3.600 €	Eusko Jaurlaritza	Urtebete
Prest Gara 2016 Ikasturteko Jarduerak	3.555 €	Eusko Jaurlaritza	Urtebete
Prest Gara 2.1.	3.575 €	Eusko Jaurlaritza	Urtebete
Hobetuz	15.208,18 €	Lanbide	Urtebete
Euskararen Erabilera Sarean	6.177,10 €	Bizkaiko Foru Aldundia	Urtebete
Konektatutako Etxeak	38.577 €	Eusko Jaurlaritza	Urtebete

Lankidetzaren hitzarmenak erakundeekin

Ekintza	Onartua	Erakundea	Iraupena
Zenbait (*)	40.000 €	Gizarte Ekintza Kutxabank	Urtebete

(*) Kutxabank gizarte-ekintzak 3 proiektutan lagundu du: 20.000 €rekin "sarean konektatutako etxeak" proiektuan, 15.000 €rekin "Trebatur, gizarteratzeko zubiak eraikiz" proiektuan, eta "Helduaro aktiboa, zahartze osasungarria sustatzeko aukera bat" proiektuan.

Diru-sarreraren banaketa

Diru-sarreraren banaketa azaltzeko, jardueraren balio erantsiari buruzko analisi-eredura joko dugu.

Balio Erantsiaren analisiaren eskeman azaltzen diren datuak ohiko ustiapen-kontutik datoz, baina beste irizpide batzuk kontuan hartuta konfiguratu dira eta beste modu batera antolatu dira, erakundeak duen eginkizunaren kudeaketaren beste ikuspegi bat eskaini ahal izateko, eta hain zuzen ere, irabazi-asmorik ez izatea da horren bereizgarria.

Era horretan, sorkuntza eta banaketa aldetik duen balioa ematen zaio erakundeak sortutako aberastasunaren komunitateari.

Sortutako aberastasun gehiena hori sortzen gehien lagundu duten eragileen artean birbanatzen da, eta alde horretatik, lortutako diru-sarreretatik gehienak (% 88) proiektuan parte hartzen duten pertsonen (bazkideen eta langileen) laneko soldatari eta aurrerakinak estaltzeko erabiltzen da.

Laneko soldaten eta aurrerakinaren kostu horretatik % 40 inguru zergen eta sozietate-kargen bidez gauzatzen da, eta hala, komunitateari itzultzen zaio aberastasun hori.

Diru-sarreraren beste parte garrantzitsu bat kontsumoaren, ekoizpenaren eta zerbitzu-azpiegituren kostuak estaltzeko

erabiltzen da.

Alde horretatik, Agintzarik lehenasuna ematen die tokiko hornitzaileei, sozialki erantzule direnei eta gure erakundearen balio eta konpromiso etikoak partekatzen dituzten ekonomia sozial eta kooperatiboko plataformetako kideei.

Azkenik, diru-sarreraren parte bat enpresan bertan atxikitzen da, soberakin modura, erakundearen beharrezko finantza-oreka bermatzeko, hurrengo ekitaldian hobekuntza eta ekimeneren finantzaketari aurre egiteko eta gerta litezkeen galerak estaltzeko.

Gizarte Ekimenerako Kooperatibetan, mozkin ekonomikoak ez dira bazkideen artean banatzen edo banaketa mugatua izaten dute mutualitate-kontzeptu zabalago baten eraginez, emaitzak sozietatearen xede eta helburuan inbertitzen baitira berriro. Alde horretatik, Agintzarik urtero dituen soberakin horietatik % 70 xedatzen du zerbitzuen kalitatea etengabe hobetzeko eta gizarte-ekintza propioa sustatu eta finantzatzeko, baita komunitatearen onurarako ere, eta % 10 bat bazkideen eta langileen heziketarako eta kooperatiben arteko lankidetzara sustatzeko, eta % 20, legeak hala agintzen duelako, erakundearen beharrezko finantza-egonkortasuna bermatzeko.

FONDOEN XEDEA

I: SOZIETATEAREN JARDUERA ETA HELBURUA:

- Titulartasun propioa gizarte-ekintzako proiektu berriak diseinatu, ikertu, gidatu eta abian jartzeko inbertsioak egitea.
- Gaur egungo zerbitzuak osatuko dituzten ekintza pilotuen finantzaketa osagarria bilatzea, herri-administrazioarekin lankidetzan.
- Erakundeak edo erakundetik kanpoko besteren batek komunitatearen mesederako sustatutako ekintzei babesa ematea eta finantzatzea.

II: ZEHARKAKO PROIEKTUAK


- Zeharkako ekintzak, lankidetzara eta, oro har, bestelako barne-ekintza batzuk finantzatzea.

III: GARAPEN KOOPERATIBOA

- Heziketa eta sustapen kooperatiboa bultzatzeko ekintzak finantzatzea.

BALIO ERANTSIA

- Laneko ordainsariak
- Amortizazioak
- Ekoizpen eta Kudeaketako Kostuak / Kontsumoak
- Finantza arloko Kostuak / Sarrerak eta Zergak + Ezohikoak (% 0)
- Soberakina
- Aplikaturako Fondoak (% 0)
- Azpiegitura-kostuak





**Agintzariko
pertsonek**

6

Kolektiboaren osaera eta ezaugarriak

2016an, Agintzari 456 lagunek osatzen zuten, eta horietatik 178 bazkideak dira eta 278 langileak. Emakumeak, guztira, % 77,85 dira. Azpimarratu behar da aurreko urteekin alderatuta bazkideen eta langileen artean ikus daitekeen aldea GFAko Trebatu zerbitzu berriak eragin duela, zerbitzu horretako pertsona guztiak langileak direlako.

Era berean, nahiko kolektibo gaztea garela esan genezake, % 56k baino gehiagok 40 urte baino gutxiago baititu. Heziketa mailari dagokionez, % 96,20k unibertsitateko titulazioa dute eta % 4,80k unibertsitatekoak ez diren ikasketak eginak dituzte.

Kontziliazio eta erantzukizun partekaturako neurriak sustatzeko gure politikarekin bat etorritik.

Agintzarik kontziliazioa sustatzen du, jardunbide egokietan

erreferente bat izan nahirik.

2017. urtean, langile guztietatik % 17 laneko bizitza eta bizitza pertsonala kontziliatzeko lanaldi muriztuaren egokieran aurkitzen ziren, eta guztira, 71 pertsona ziren (5 gizon eta 66 emakume).

2016an Agintzariko lanbide-kategoria desberdinetan lan egin duten pertsonen dagokienez eta, zehazkiago, lidergo hedatuaren kudeaketa-estrategiari dagokionez, langileen % 14,47k kudeaketa-erantzukizunen bat betetzen dute zuzendaritza edo koordinazio arloan.

Hain zuzen ere, kudeaketa-egitura 10 zuzendarik osatzen dute (5 gizon eta 5 emakume), erantzukizunak dituzten erdi-mailako teknikariak 34 dira (30 emakume eta 4 gizon) eta erantzukizunak dituzten goi-mailako teknikariak, berriz, 19 (16 emakume eta 3 gizon).



Barne Heziketa

Agintzarik 73 heziketa-ekintza garatu ditu, eta horietatik 15 bi talderekin; guztira 88 talde izan dira, batez beste 15 parte-hartzaile bilduz, eta denera 10.717,5 heziketa-ordu zenbatu dira.


Horietatik, kanpoko erakundeek 7 bakarrik antolatu dituzte, eta gainerakoak, 81, Agintzarik berak antolatu ditu.

Eskaintako heziketa-orduak 762 izan dira, eta parte-hartzaile kopuruari erreparatuz gero, heziketa-ekintza horietan parte hartu duten pertsonen % 73 emakumeak izan dira. Ikastaro bakoitzeko parte hartu duten emakumeen batez bestekoa 11 da.

Ondorengo grafikoan ikus daitekeenez, heziketa-ekintza gehienak (62) esku-hartze sozialaren alorrean lan egiten duten profesionalen garapen teknikora zuzenduak daude. Antolamendu arlokoen barruan sailkatutako 7 heziketa-ekintzek gure kudeaketa, enpresa eta antolamendu-ereduarekin loturikoak jorratuko dituzte.


Informatika arlokoen barruan sailkatutako 9 heziketa-ekintzetatik 5 kontabilitate saileko pertsoneri zuzenduak izan dira, eta horrek argi erakusten du erakundeak heziketa-premia desberdinei eskaintzen dien garrantzia.

Heziketa-ekintzen tipologia



Sexuen araberako banaketa


- Emakumeak
- Gizonak



Jakintza partekatzea gure erakundearen filosofiaren parte da, eta heziketa-guneak hori praktikara eramateko erabilitako baliabidetako bat da; horrexegatik, heziketa-ekintzen % 20 erakunde barruko pertsonek berek eskaintzen dituzte.

Topagune profesionaletan, biltzarretan eta abarretan parte hartzeak eta ezagutza eraikitzearen alde jotzeko, teknika eta unibertsitate arloko ondorengo guneetara bultzatu gaituzte 2016. urtean:

- Kanpo Hizlariak
- Barne Hizlariak



Topagune profesionaletan, biltzarretan eta abarretan parte hartzeak eta ezagutza eraikitzearen alde jotzeko, teknika eta unibertsitate arloko ondorengo guneetara bultzatu gaituzte 2016. urtean:

- “Nerabezaroa aukeren aroa” Biltzarra, Izan Fundazioa – Norbera, Donostian antolatua (2016ko maiatzaren 27an eta 28an)
- EUROPEAN CONGRESS “Restorative and therapeutic justice: towards innovative models of justice”. 2016ko ekainaren 16tik 18ra, Donostian.
- European Conference on Child Abuse and Neglect. 2016ko maiatzaren 25etik 27ra, Amsterdamen.
- “Gizarte Hezitzailearen laneko testuingurua EAEko Gizarte Zerbitzuetan” Jardunaldia, maiatzaren 19an Bilbon GHEEK antolatua.

Euskara Batzordea

Agintzarik Euskara Plan bat du Kooperatibaren kulturen euskararen erabilera hobetzeko eta euskararen presentzia areagotzeko. Plan honek funtsezko bi ardatz ditu, eta bi ardatz honen helburua, hain zuzen ere, erakundearen barruan euskara ezagutzea, erabiltzea eta sustatzea da.

Ildo nagusi gisa, beraz, Agintzariko pertsonen heziketa eta Ezagutza bultzatzearen alde egin dugu, eta helburu horri begira, Ulibarri Euskaltegiarekin elkarlanean aritu gara euskarak Agintzari barruan presentzia eta erabilera handiagoa izan dezan.

Bigarren ildo euskararekiko konpromisoa sustatzea eta horri aktibo eustea izan da, dokumentazioa, barne-agiriak, jakinarazpenak, web orria eta abar euskaraz ere egon daitezela ahaleginduz. Gainera, modu natural batean barneratuko da eremu desberdinetan (bileretan eta profesionalen eta sozietatearen eremuetan).

Urtearen erdialdera, indartu egin da euskara batzordea bi pertsona berri gehiagorekin, eta horri esker, sei laguneko talde bat eratu da, kooperatibaren errealitate desberdinetako kideek osatua.

Euskarak Agintzari barruan duen erabilera, presentzia eta kudeaketa hobetzeari begira, Bikain Ziurtagiria erdiesteko Euskalit erakundeak eskaintzen duen heziketa jaso dute kooperatibako bi pertsonak. Bi pertsona horiek Euskalit erakundeko ebaluatzaileen elkartean parte hartzen dute, eta horien etorkizuneko erronka ziurtagiri hori erdiestea izango da.

Berdintasuna

2016. urtean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunaren alorrean aurrera egiteko konpromisoari eta lanari eutsi dio Agintzarik, Emakumeen eta Gizonen III. Berdintasun Plana (2015-2017) garatuz, generoaren ikuspegi integral batetik, bai bere estrategian eta bai bere jardueraren kudeaketan ere. III. Berdintasun Plan honetan, arlo desberdinetan oinarritutako jarduerak burutzen ari gara, hala nola pertsonen kudeaketaren alorrean, generoaren ikuspegia guk kudeatutako zerbitzuetan eta gure erakundearen aplikatzeko garapen teknikoaren alorrean, edota etengabeko hobekuntzan eta barne mailan nahiz kanpo mailan sentsibilizatzeko eta kontzientziatzeko orduan, eta abar.

2009. urteaz geroztik, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde Laguntzaile gisa izendatuak gaude. Berdintasuna geureganatu genuenetik, bikaintasuna erdiesteko beharrezko elementu bilakatu da gure erakundearen barruan.

Emakumeek jasaten duten indarkeriaren aurka dugun konpromisoa eta gizarte-eragin bat duen eragile gisa betetzen dugun eginkizuna nabarmentzeko xedez, 2016. urtean barne-sentsibilizaziorako jarduera desberdinak egin ditugu, hala nola indarkeria matxistaren aurkako esloganen kanpainak eta konpromiso hori jasotzen duten argitalpen grafikoak.

Kontziliatorako eta erantzukizun partekaturako neurriak sustatzeko gure politika mantentzearen eta ezagutzera

ematearen alde lanean jarraitzen dugu, historikoki aurrerapenik handienetakoa erakutsi duen antolamendu-elementuetako bat delako. 2016. urtean, Bizkaiko Foru Aldundiarekin eta Deustuko Unibertsitatearekin batera, Bizkaiko enpresetan kontziliatorako eta erantzukizun partekaturako Politikei buruzko azterlan batean parte hartu dugu, eta alor horretan jardunbide egokiak nabarmen garatu dituen erakunde gisa jo izan gaituzte.

Beste alde batetik, gizarte-erantzukizuna gauzatzeari buruzko gogoeta-prozesu baten ondorio modura, 2016. urtean parte-hartze nabarmena izan dugu beste erakunde eta elkarte batzuekin hausnarketa bateratua egiteko sare eta gune desberdinetan, esate baterako REAS erakundearen ECOSOLFEM taldearekin ezagutzak, ibilbideak eta proposamenak partekatzeko, horrek aukera eskainiko baitigu Ekonomia Sozial eta Solidarioko erakundeen barruan genero-berdintasunaren alde aurrera egiteko. 2016. urtean, BAI SAREA sortzeko prozesuan parte hartu du Agintzarik; Emakundek bultzaturik, berdintasuna sustatzen duten erakunde eta enpresen sare bat da, eta horren helburua, ekimenen eragina areagotzea da, erakunde desberdinetan berdintasuna errealitate bihurtzeko bide horretan.

Elkarrizketa eta lanerako topagune batzuk antolatu ondoren, Agintzarik bere horretan eutsi dio lankidetzaren aldean duen partaidetzari, hots, lankidetzaren sareak eraikitzeko lanari.



Berrikuntza

Agintzari-Zabalduz barruan, ezagutza, truke, sormen eta esperimenezko jarduerak multzo gisa ulertzen eta ikusten da Berrikuntza. 2016. urtean berrikuntzan egindako inbertsioek era askotako jarduerak biltzen dituzte.

Proiektu Taldeak

Gogoeta egiteko, ideiak garatzeko, prozesuak hobetzeko, gizarte-premiak, produktu berriak edo zerbitzuak identifikatzeko... lantaldeak dira. Diziplina eta ibilbide desberdinetatik etorritako profesionalak osatzen dituzte. Jarduera horren bidez sorkuntza-gaitasun handi bat eta lankidetzarako ikaskuntza-espazioak sortzen dira. 2016. urtean 34 PT izan ditugu aktibo. 98 profesionalak parte hartu dute, 77 emakumek eta 21 gizonek, eta guztira 1.821 orduko dedikazioa eskaini dute.

Hitzune PT izenekoak, zigorra betetzen ari diren bitartean sexu-gaizkileei arreta psikologikoa eskaintzeko programak, 7.360 euroko diru-laguntza jaso du Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritzaren aldetik.

Urte honetan 14 PT abiarazi dira eta 6 PT amaitu dira: Min kognitiboaren ebaluazioa eta diagnostikoa, Zerbitzu eta prestazioen katalogoa, epeak edo helburuak betetzeko Emantzipazio Etxebizitzak, eta beste hiru gehiago, parte hartzeko barne-prozesuak egokitzeko.

Aipagarriak dira PT batzuen eta Ekimen Propioko lldoaren arteko sinergiak (Mindfulness, Jolaseratu, Pedagogia sistemikoa, Esku-hartze Sozialeko Heziketa, Adinekoen autonomiaren sustapena, Sarean konektatutako etxeak eremu komunitarioan, eta abar), eta berrikuntzak sustatzeko eta sortzen diren premia berriei arreta egiteko ekimen propioaren eremua indartzen dute.

Europako Proiektuak

Urtearen azkeneko hiru hilekotik aurrera dedikazio propioa dugu Europako esperientzia berriak ezagutzeko eta geureganatzeko. Aurkezpenarekin eta harremanarekin loturiko lehen ekintzak jorratu dira. Gure helburua trukeak erraztea eta jardunbide egokiak ezagutu ahal izatea da, gure zerbitzu eta taldeetan gauzak egiteko eta pentsatzeko modu berriak sor daitezzen.

Agintzari-Zabalduz 6 proiekturen eskaeran parte hartzen ari da.

FICE Espainia

Europar babes-premia duten haur eta nerabeen bizi-kalitatea hobetzeko xedez Opening doors SPAIN kanpaina abiarazi da. Kanpaina hori aukera on bat da haurrak babesteko eredu komunitarioagoetara aurrera egiteko. FICE Espainia plataformak zenbait jarduera burutuko ditu 2018 arteko hedadurarekin.

<http://www.openingdoors.eu/where-the-campaign-operates/spain/>

Berrikuntza

Ikerketa

Erakundeak ikerketaren kultura aurrerapausoak egitea eta egungo jarduerak eskaintzen dizkion aukera guztiak aprobetxatzea da helburua, bai ekimen propioaren bidez eta bai lankidetzaren bidez ere.

Aurten, adopzioari buruzko datuen antolamendu eta analisi bat egin da, adoptatutako haur eta nerabeei eta beren familiei arreta pribatua eskaintzeko esperientzia aztertuz. Tesi bat prestatzen ari dira, eta mentalizazioaren, helduekiko atxikimenduaren eta hazkuntzan duen eraginaren arteko harremana jorratzen du horren edukiak.

Azterlan hori martxoan aurkeztuko da bertan parte hartu duten erakunde eta eragileen artean: Familiari arreta egitea, bikotea banantzen eta dibortziazten den unean.

Udaleko gizarte-zerbitzu batzuen, EHUko Harremanak Ikerketa Taldearen eta Agintzariren arteko lankidetzak honek beste gai batzuetan ere errepika daitekeen esperientzia gisa jokatuko du.

Dokumentu hori webgunean dago eta Internet bidez eskura daiteke.

GFaren finantzaketa-esparruaren barruan, Community Proiektua dugu: lankidetzak bidezko ekintzaitzari begira antolatzeke eta parte hartzeke testuinguru berriak, eta EHUko GEZKI Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboaren Institutuak tresna berriak eskaintzen dizkigu azterlan horretan, lankidetzaren esparruan parte hartzea sakontzeko.

Aurten, “Gizarte eta hezkuntza arloko ekintza-ereduak haur eta nerabeekin EAEko udaletako gizarte-zerbitzuetan” izenburua daraman doktoretza-tesia irakurri dute, eta erakundearen babesa jaso du.




Berrikuntza

Beste batzuk

Azpirarratzekoa da, halaber, jardunbide berri gisa zenbait zerbitzutan barneratzen ari diren ebaluazioan egiten ari diren ahalegina. Alde batetik, test aurreko eta test osteko izaeraz proba tekniko batzuk barneratzen ari dira, eta esku-hartzeen emaitzei buruzko informazio handiagoa eskaintzen digute urtearen amaieran. Gizarte eta Hezkuntza alorrean haur eta nerabeekin Esku Hartzeko Zerbitzuaren barruan (TREBATU) oroimenenerako hobekuntza benetan garrantzitsua izango da zerbitzuarentzat, eta ekintza-ikerketa barneratzeko aukera emango du horren horniduran.

Beste alde batetik, arlo teknikoan jauzi kualitatiboa dakarten bi aplikazio informatiko eraikitzen aurrera egin dugu aurten, lehen mailako arretako 38 zerbitzu inguru eta bigarren mailako arretako zerbitzu bat garatzeko xedez.

Agintzari GESK Innovation Communities (SIC) Proiektu Sozialaren barruan aurkeztu da kasu hori aztertzeko: Proiektu hori Europako Berrikuntza Sozialaren Sareen Sarea sortzeko ekimen bat da, eta Horizonte 2020 izeneko programa europarraren barruan kokatuko litzateke, eta bertan, benetan eginkizun garrantzitsua betetzen du Sinnergjak Social Innovation (EHU) izenekoak. Eskerrak eman nahi dizkiogu berrikuntza-zentro honi, Agintzari berrikuntza sozialeko erakundetzat jotzeagatik eta azterketaren analisiengatik, oso baliagarriak izango zaizkigulako.



Autokudeaketarako eta partaidetzarako espazioak

Gure kudeaketa-eredua hiru zutabetan oinarritua dago, eta hiru zutabe horiek zehazten dute gure antolatzeko modua:

- Kooperatibako kide izateko eta horren barruan elkarrekin lantoki bat baino zerbait gehiago sortzeko ilusioa.
- Erakunde gizatiarragoa izatea, kooperatiba osatzen duten pertsonen premietan eta komunitatearen, erabiltzaileen eta bezeroen premietan oinarritua.
- Gure sektorean erreferentzia izatea eta gizarte-zerbitzuen sistema garatzen laguntzea.

Zutabe horietatik kudeaketa-kontzeptu batzuk ondorioztatzen ditugu, eta hain zuzen ere horiek gidatuko dute sostengu emango dien antolamendu-dinamika:

- Pertsonen eta lantaldeen autonomia. Taldeek elkarrekin parte hartuko dute kudeaketan. Deszentralizazioaren kontzeptua garatuko dute. Lidergo-formula berriak bilatuko dituzte.
- Bere errealitatearekin bat etorritik, heterogeneotasuna onartzen eta barne-dibertsitatea errespetatzen duen erakunde bat, eta aldi berean, nortasun kolektibo bat eskaintzen diguten balioak garatu daitezela sustatzen duena.
- Kooperatiban sorkuntza-espazioak sortzea. “Egiten” eta “pentsatzen” duten pertsonen arteko binomioa apurtuz, bi ikuspegi horien artean eraikuntza bateratu bat osatu dezatela ahalbidetuz.
- Lidergo partekatua, eta alde horretatik, beste pertsonekin batera eraikitzen den ekintza gisa ulertuko dute lidergoa, betiere prozesuen eta partekatutako helburuaren gaineko erantzukizunaren ikuspegitik.

Batzarrak

- Batzar nagusi 1 (ekainak 4)
- Informazio-bilera ireki 1 (martxoak 12)

85 pertsona

-Urteurrenaren aurkezpena 70 pertsona

-Gizarteratzen 15 pertsona

	Emakumeak	Gizonak	Bilera kop.
Zaintza-batzordea	3	0	9
Azterkaritza Kontseilua	6	1	24

Hausnarketa-taldeak

Erakundearentzat garrantzi handia duten gaiak aztertu, proposatu eta eztabaidatuko dituzten taldeak dira, eta gai horiek, esate baterako, jarduteko estrategia-ildoak, ordainketa-sistemaren alderdiak eta kontziliazio-neurriak izan daitezke. Espresuki sortzen dira, batzuk maiztasun jakin batez, eta beste batzuk zeharkako premiei erantzuteko. Analisisetan ikuspegi desberdinak barneratzea eta proposamen zabalagoak eta konplexuagoak hartzea ahalbidetzen dute.

	Emakumeak	Gizonak	Bilera Kop.
Sarea	29	11	11
RE	30	17	2
Mugikortasuna	6	2	2
Parte-hartzeari buruz (GEZKI)	32	10	7
Elkarrekin eraikitzeari buruz (koordinazioak)	55	19	2
3. sektorean parte hartzea	28	8	3
Konpetentzien arabera garatutako eredia	5	1	6

Batzordeak

Batzordeek erdi-egiturazko izaera dute kooperatibaren barruan. Batzuek lege-betebeharrei erantzuten diete, eta beste batzuek Agintzariren betebeharrak politikoei.

Horietako batzuk hautatutako pertsona batzuek osatzen dituzte (Laneko Arriskuak), baina gehienetan borondatez parte hartu daiteke eta denontzat irekiak dira.

	Emakumeak	Gizonak	Bilera Kop.
Berdintasun Batzordea	7	1	10
Barne Prestakuntzako Batzordea	9	0	9
Euskara Batzordea	5	1	10
Laneko Arriskuen Batzordea Web	2	3	4
Web Batzordea	2	3	8
Gizarteratzen Batzordea	7	2	19
Urteurren Batzordea	8	5	12
Profesional berriei laguntzeko Batzordea	3	3	2

Kudeaketa Taldeak

Gure lan-zentroen banaketa dela eta, gehienak arretarako zentro publikoetan kokatuak daudenez, zerbitzuetan kudeaketa-modu eta laguntza-modu berezi batzuk ezarri behar izan ditugu, denbora, forma eta edukien aldetik eraginkortasun handikoak.

Duela urte batzuetatik hona, Agintzarik antolamendu-egitura berezi bat jorratu du, eta horren ezaugarri nagusia jarduera hobetzea zen (zerbitzuak, pertsonak, proiektuak, kontrol ekonomikoa, bezeroekin duen harremana eta abar), modu autonomo eta deszentralizatu batez, kudeaketaren berehalakotasunaren gaineko erantzukizuna jarduera gauzaten den tokitik ahalik eta hurbilen egon zedin. Ikuspegi horren sostengu den elementu nagusia Kudeaketa Taldeak (KT) dira, Zuzendaritza batek eta KT bakoitza osatzen duten zerbitzuen koordinatzaileek osatutako espazioak.

	Emakumeak	Gizonak	Bilera kop.
Kudeaketa Taldeak (9 talde)	58	19	81

Zabalkunde eta komunikazioko bilerak

	Emakumeak	Gizonak	Bilera kop.
PG eta Sarearen aurkezpena	57	21	6
Kooperatibako txanda-kontratuen aurkezpenak	54	11	4

Proiektu Taldeak

Lanerako eta harremanerako formatu hau Agintzariren jarduerak dituen bi aurpegiei erantzun bat emateko sortu zen. Alde batetik, parte hartzeko, harremanak egiteko eta nortasun korporatiboa sustatzeko espazioak sortu beharri erantzuten dio. Beste alde batetik, ezagutzak sortzeko eta berritzeko proposamenentzat baliabide garrantzitsu gisa bilakatu dira. Gogoeta egiteko, ideiak garatzeko, prozesuak hobetzeko, gizarte-premiak, produktu berriak edo zerbitzuak identifikatzeko... lantaldeak dira. Diziplina, konpetentzia eta ibilbide profesional desberdinetako profesionalen borondatezko lana da horien abiapuntua, zerbitzu desberdinen barruan daude eta interes komun baten inguruan eta taldeak berak definitzen dituen helburuen inguruan antolatzen dute beren lana. Jarduera horren bidez sorkuntza-gaitasun handi bat eta lankidetzarako ikaskuntza-espazioak sortzen dira.

	Emakumeak	Gizonak	Bilera kop.
Proiektu Taldeak (34)	77	21	1.821



7

**Erakundeak
eta agenteak**



Harremanak eta konpromisoa ingurunearekin


Komunitatearen garapena

Agintzarik, Gizarte Ekimeneko Kooperatiba den aldetik, komunitatearen garapenean inplikaturako gizarte-enpresa gisa dihardu, proposamen berritzaileak abiarazten eta kalitateko zerbitzuak kudeatzen lan egiten du, zailtasunezko egoeran aurkitzen diren pertsonen eta kolektiboen gizarte-premiei erantzuteko helburuarekin.

Adierazpen hori harremanak egiteko dugun moduaren bidez gauzatzen da bai eskaintzen diegun pertsonekin eta taldeekin, bai zerbitzuak eskaintzen dizkiegun erakundeekin edo, baita gurekin elkarlanean eta/edo lehian aritzen diren entitateekin ere, zeharka gure jarduera guztietan.

Komunitatera eta lurraldera hurbiltzeko prozesu hori ildo eta programa desberdinetan 20.000 pertsona baino gehiagori arreta eskainiz hasten da.

Pertsona horietako batzuk zaurgarritasun-egoeran eta/edo familia edo gizarte mailako zailtasunetan aurkitzen diren herritarrak dira, eta horrelakoetan, baliabide komunitarioekin hurbiltasuna eta harremanak izatea funtsezko jarduera dira, esku hartzeko filosofia horretan garrantzi handikoa baita pertsonak beren ingurunearekin konektatuak egotea, dauden baliabideetan eta gizarte-partaidetzan laguntza jaso dezaten.



Erakunde Harremanak

Erakundeei dagokionez, Agintzarik erantzukizun publikoko eredu baten aldeko atxikipena edukitzea azpimarratzen da, herritarrei berme batzuk emango dizkiena eta pertsonen eskubideak zainduko dituena. Bere eginkizunean, Agintzarik aitortzen du bere ekarpena egin duela Gizarte Ongizatearen alde eta, beraz, gizarte zuzenago, solidarioago eta bere aniztasunean bateratuago bat sustatzearen alde eredu publiko bat legitimatu dadin, lankidetzaren, komunikazioaren, askatasunaren eta erantzukizunaren ikuspegitik. Gure iritziz, berme publiko horren barruan lankidetzaren publiko-pribatua sar daiteke, bereziki hirugarren sektorekoa eta gizarte-ekonomiaren arlokoa, eta hala, arlo horietan gizarte-premiei erantzuteko orduan erantzukizun partekatu batez esku hartzen dugu.

- EAEko 30 udal eta mankomunitate.
- Bizkaiko Foru Aldundia. Gizarte Ekintza Saila, GUFIE Institutua.
- Arabako Foru Aldundia. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea.
- Gizarte Politikarako Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Familia Politika eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.
- Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.
- Hezkuntza Berrikuntzarako Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Berrikuntza Saila.
- Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako Lehendakariordetza.

Batzordeetako kide izatea

- Eusko Jaurlaritzako Haurren Batzorde Iraunkorra.
- Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Haurren Batzordea.
- Bilboko Udaleko Gizarte Ongizatearen Udal Kontseilua.
- Bilboko Udaleko Haurren Batzordea.
- Eusko Jaurlaritzako Immigrazio Foroa. Sektore honetako beste entitate batzuekin dugun lankidetzaren eta harremanaren lankidetzaren eredu desberdinen bidez gauzatu da, esate baterako Bilbon edo Nafarroako Eguesibarrean garatutako proiektuen bidez.

Enpresen lankidetzaren

- Lankidetzaren proiektua IRSE elkartearekin, gizarte-hezkuntza arloan esku hartzeko zerbitzuak kudeatzeko Zorrotzan, Basurtun, Otxarkoagan eta Santutxun.
- Lankidetzaren proiektua Gaztelekurekin, gizarte-hezkuntza arloan esku hartzeko zerbitzuak kudeatzeko Iralan eta Rekaldean.
- Lankidetzaren proiektua Kale Dor Kayikorekin, Santutxu eta Otxarkoaga inguruetan Eskolako Absentismoaren Programa kudeatzeko.
- Lankidetzaren proiektua Continuumekin, Nafarroako Eguesibarreko haur-eskolako hiru zentroak kudeatzeko.



Lankidetzeta-hitzarmenak entitateekin

- Intress
- Vasija
- FAIM
- EKIE
- EVNTF
- Murgibe
- Bizkaiko Psikologoaren Elkargo Ofiziala
- Bizkaiko Hezitzaileen Elkargo Ofiziala

Lankidetzeta-harremana familien elkarteekin


- AFAAR Errioxa
- AFADENA Nafarroa
- AFAMUNDI Kantabria
- Ume Alaia Bizkaia
- Ume Alaia Gipuzkoa

Unibertsitateak eta Heziketa eta Ikerketa Zentroak

- Euskal Herriko Unibertsitatea
- Deustuko Unibertsitatea
- VIC

Lankidetzeta Sareetan

Agintzarik gizarte arloko esku-hartzeen alorreko mugimendu sektorialetan eta mugimendu kooperatiboan parte hartzen du, eta hori ondorengo erakunde kolektiboekin duen atxikimenduaren bitartez gauzatzen da:





Zabalduz
Gizarte Ekimeneko Kooperatiba
Cooperativa de Iniciativa Social

8





Zabalduz GESK Kooperatiba 2014. urtean sortu zen UBA Zentroko langileekin (Gipuzkoako Foru Aldundiak adingabeentzat duen etxebizitza-harrerarako sarearen barruan dago zentro hori), eta Agintzari GESKek ere parte hartzen du kooperatiba horretan.

2016. urtean mugari benetan garrantzitsua izan zen Gipuzkoako Foru Aldundiarekin kontratua erdiestea, zerbitzu hori berritzeko lehiaketa gainditu ondoren. Horrela, 2016ko maiatzean, Zabalduz kooperatibaren titulartasunpean, kontratu berriari ekin zitzaion, kaudimen eta ekonomia aldetik Agintzariren bermea zuela. Kontratu horrek aurreko garaiko funtsezko elementuak mantentzen ditu, nahiz eta aldaketa txiki batzuk ere egin zaizkion.

Zentro honen berezitasunetako bat, hain zuzen ere, laguntzailerik gabe etorritako adingabe atzerritarrei harrera egitea da. Kanpotik etorritako pertsona hauen jarioa nabarmen handitu da azkeneko urteetan, kanpoko faktore desberdinen ondorioz. Hori dela eta, harreraren hartutako pertsona horien eskubideak bermatzeko harrera-baldintzei buruz gogoeta sakon bat eta egokitzapen bat egin behar izan da, aldi berean baliabide publikoen erabilera ere hobetuz.

Epealdi horretako bigarren mugari garrantzitsua Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizateko Institutuak AFHSB lehiaketa esleitu izana da (Arabako Familia Harrera Sustatzeko eta Babesteko Programa). Prestazio hori Agintzari eta Zabalduz erakundearen arteko lankidetzaren dinamikaren barruan sartzen da (Agintzarik kudeatzen zuen zerbitzu hori lehenagotik eta Agintzarik Zabalduz kooperatibari proposatu zion zerbitzu honen titulartasuna hartzea).

Kooperatibaren garapenari dagokionez, Zabalduz kooperatibaren bazkide kopurua handitu egin da, eta hala bi pertsona gehiago ditu, 2015. urtean 19 lagunek osatzen baitzuten eta 2016. urtearen amaieran, berriz, 21 lagunek, eta era horretan, kooperatibizazio-prozesuaren % 50era hurbildu da.

Beste alde batetik, partaidetzaren atalari dagokionez, kooperatiba-jarduerak duen berezko dinamikaz gain (Zuzendaritza Kontseilua, bazkideen batzarrak eta beste informazio-gune batzuk), Uba-Zabalduz erakun-

deko pertsonen parte hartzen duten talde bat abiarazi da.

“Gipuzkoako Lurraldean errefuxiatuta dauden pertsonen artea egiteko egoera-mapa. Jardunbide egokirako gomendioak” izeneko proiektua garatzea zen horren helburua. Talde honek proposamen bat landu zuen, eta diru-laguntza bat jasotzeko deialdi batera aurkeztu zuten, nahiz azkenean ez zuten onartu. Agintzarik Zabalduz erakundeari luzatu dion kudeaketa-ereduaren funtsezko elementuetako bat garatzen hasteko balio izan zuen jardura horrek, hots: kooperatibaren xedearekin loturik dauden baina proiektu-taldeen eguneroko jarduna gainditzeko duten eremuetan pertsonen parte hartzea.

Zabalduz erakundeak epealdi horretan dituen erronkak ondorengo hauek izango dira: Agintzarirekin loturiko kudeaketa-eredua Sarea bitartez finkatzea, bazkideen kopurua areagotzea eta zerbitzu edo prestazio berriak erdiestea (bai ekimen propioaren bidez eta bai ekimen publikoaren bidez), Zabalduz erakundeak duen jardura-katalogoa zabaltzeko.

Diru-sarreraren banaketa azaltzeko, jardueraren balio erantsiari buruzko analisi-eredura joko dugu.

Balio Erantsiaren analisiaren eskeman azaltzen diren datuak ohiko ustiapen-kontutik datoz, baina beste irizpide batzuk kontuan hartuta konfiguratu dira eta beste modu batera antolatu dira, erakundeak duen eginkizunaren kudeaketaren beste ikuspegi bat eskaini ahal izateko, eta hain zuzen ere, irabazi-asmorik ez izatea da horren bereizgarria.

Horrela, balio handiagoa ematen zaio erakundeak sortutako aberastasunaren sorrerari eta komunitatean duen banaketari.

Sortutako aberastasunaren gehiengoa hura sortzen gehien lagundu duten eragilearen artean banatzen da; alde horretatik, lortutako diru-sarreretatik gehiena proiektuaren parte diren pertsonen (bazkideak eta langileak) soldatak eta lan-aurrerakinak ordaintzeko erabiltzen da. Laneko soldaten eta aurrerakinaren kostu horretatik % 40 inguru zergen eta sozietate-kargen bidez gauzatzen da, eta hala, komunitateari itzultzen zaio aberastasun hori.

Diru-sarreraren beste parte garrantzitsu bat kontsumoaren, ekoizpenaren eta zerbitzu-azpiegituren kostuak estaltzeko erabiltzen da.

Azkenik, diru-sarreraren parte bat enpresan bertan atxikita geratu da, soberakin gisa, entitateak beharrezkoa duen finantza-oreka bermatzeko.

Soberakin horrek kooperatiban atxikitako aberastasuna adierazten du, eta hurrengo ekitaldietako hobekuntzen eta ekimenen finantzaketari aurre egiteko edo izan ditzakegun galerak estali ahal izateko erabiliko da.

Gizarte Ekimeneko Kooperatibetan, mozkin ekonomikoak ez dira bazkideen artean banatzen edo banaketa mugatua izaten dute mutualitate-kontzeptu zabalago baten eraginez, emaitzak sozietatearen xede eta helburuan inbertitzen baitira berriro.

Alde horretatik, Agintzarik urtero dituen soberakin horietatik % 70 xedatzen du zerbitzuen kalitatea etengabe hobetzeko eta gizarte-ekintza propioa sustatu eta finantzatzeko, baita komunitatearen onurarako ere, eta % 10 bat bazkideen eta langileen heziketarako, ikerketa sozialerako eta kooperatiben arteko lankidetzaren sustatzeko, eta % 20, legeak hala agintzen duelako, erakundearen beharrezko finantza-egonkortasuna bermatzeko.

I: SOZIETATEAREN JARDUERA ETA HELBURUA:

- Titulartasun propioko gizarte-ekintzako proiektu berriak diseinatu, ikertu, gidatu eta abian jartzeko inbertsioak egitea.
- Gaur egungo zerbitzuak osatuko dituzten ekintza pilotuen finantzaketa osagarria bilatzea, herri-administrazioarekin lankidetzan.
- Erakundeak edo erakundetik kanpoko besteren batek komunitatearen mesederako sustatutako ekintzei babesa ematea eta finantzatzea.

II: ZEHARKAKO PROIEKTUAK

- Zeharkako ekintzak, lankidetzaren eta, oro har, bestelako barne-ekintza batzuk finantzatzea.

III: GARAPEN KOOPERATIBOA

- Heziketa eta sustapen kooperatiboa bultzatzeko ekintzak finantzatzea.

BALIO ERANTSIA

- Laneko ordainsariak
- Finantza arloko Kostuak/Sarrerak eta Zergak + Ezohikoak
- Soberakina
- Aplikaturako Fondoak
- Azpiegitura Kostuak (% 0)
- Ekoizpen eta Kudeaketako Kostuak / Kontsumoak (% 0)
- Amortizazioak (% 0)

